

TITULARRAK	ADIERAZLEAK		
	Azken datua	Δ Urte artekoa (%) <small>*aurreko aldia</small>	Azken datuaren data datua
<ul style="list-style-type: none"> Uztailean erregistratutako langabeen kopurua 21.896 pertsonara igo da, hau da, ekaineko datuaren aldean % 0,9 gehiago. Kontratazioa -% 8,6 jaitsi da urtetik urtera, baina kontratu mugagabeak % 28,4 izan dira guztira. Bilbon ekainean afiliatutako biztanleak, guztira, 180.989 dira; hau da, ekainarekin alderatuta kopuruak -% 0,2 egin du behera. Zerbitzuetan enpleguen -% 0,4 galdu dira. Txikizkako merkataritzak bigarren hiruhilekoan % 4,5eko urte arteko igoera izan du salmentetan. Bilboko jarduera turistikoak hobera egin du, izan ere, urtez urteko igoera izan dute bidaiarien sarrerek (% 47,5) eta ostatu-gauak (% 47,3). Eta 2019ko uztailearen erregistraturiko datua gainditu da. Bilboko aireportuan 580.572 bidaiari erregistratu dira uztailean; hortaz, % 63,7ko gorakada egon da 2021eko hilabete berarekin alderatuta. Bilboko Portuko salgaien garraioa uztailean % 30,3 igo da; bosgarren hilabete kontsektibo urte arteko aldakuntza positiboarekin. Hiri- eta metropoli-garraioak, urteko lehenengo seihilekoan, 2019ko aldi berean erregistraturiko bidaiarien % 85 berreskuratu du. 	<p>Lan-merkatua</p> <p>Afiliatutako biztanleak (kop.) 180.989</p> <p>Ereregistratutako langabeak (kop.) 21.896</p> <p>Ereregistratutako kontratuak 12.486</p> <p>Merkataritza</p> <p>Txikizkako merkataritza: salmenta-indizea (2015. urtea = 100eko oinarria) 106,6</p> <p>Turismoa</p> <p>Bidaiarien sarrera (kop.) 116.237</p> <p>Ostatu-gauak (kop.) 224.158</p> <p>Garraioa</p> <p>Bidaiarien aireko garraioa (kop.) 580.572</p> <p>Salgaien itsas garraioa (milioi tona) 3,2</p> <p>Hiriko garraioa eta metropoliko garraioa (milioi bidaiari) 51,8</p>	<p>-0,2*</p> <p>0,9*</p> <p>-8,6</p> <p>4,5</p> <p>47,5</p> <p>47,3</p> <p>63,7</p> <p>30,3</p> <p>22,2</p>	<p>UZT</p> <p>UZT</p> <p>UZT</p> <p>II-2022</p> <p>UZT</p> <p>UZT</p> <p>UZT</p> <p>UZT</p> <p>Urt.-Eka.</p>

DATU BAT

% 47,3

Hotel gauak

LAN-MERKATUA

Erregistratutako langabezia-tasa

Uztailean, 185 langabe gehiago erregistratu dira; horrek esan nahi du % 0,9ko hazkundera erregistratu dela hilabete batetik bestera, eta 21.896 langabe daudela udalerrian.

Emakumeen langabezia igo egin da (% 1,0) eta gizonena ere bai, baina gutxiago (% 0,6): 124 eta 61 langabe gehiago hurrenez hurren.

Adin-taldeen arabera, langabezia gazteenen artean (16 eta 24 urte artekoak) bakarrik jaitsi da: uztailean, aurreko hilean baino 46 gutxiago. Hilabetea langabezia handiagoarekin itxi dute 45 urtetik gorakoek (% 1,0) eta 25 eta 44 urte bitartekoak; azken horrek du langabezia altuena, % 1,4 eta 118 langabe gehiago.

Jarduera-sektoreen arabera, lehen sektoreak (-2), industriarenak (-13) eta aurretik lanik ez zutenen taldeak (-57) langabezia murriztu dute eta bereziki hazi da zerbitzuen sektorean, zainak 252 langabe (% 1,7) utzi baititu, eta pixka bat igo da eraikuntzan (% 0,3 eta 5 langabe gehiago).

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu handienetan (G-5), langabeziaren bilakaerak % 1,0eko gorakada izan du aurreko hileko datuen aldean. Bartzelona eta Zaragoza gora egin du langabe-kopuruak, % 2,0, bi kasuetan, eta Valentzian bakarrik murriztu da langabezia hil honetan (-% 0,7).

Euskal hiriburuen multzoan (G-3) langabeziak -% 0,6 egin du behera. Behera egin du Gasteizen (-% 1,0) eta Donostian (-% 2,2). Iruñean -% 1,0 egin du gora.

Populazio afiliatua

Uztailaren amaieran 180.989 afiliatu erregistratu ziren Bilboko enpresetan, hau da ekainean baino 453 gutxiago (-% 0,2).

Erregimenen arabera, hilabete batetik bestera Bereziatan (Nekazaritza eta Itsasoa) igo da afiliazioa; 23 enplegu gehiago. Gainerakoetan, afiliazioa jaitsi egin da, 405 enplegu Araubide Orokorrean, 55 Langile Autonomoen Araubide Bereziatan eta 16 Etxeko Langileen Araubidean.

EAEen, orokorrean, afiliatuen kopuruak % 0,5 egin du gora. Afiliazioa handitu da hiru lurraldeetan; Gipuzkoan % 0,7, Bizkaian % 0,5 eta Araban % 0,1.

Erregistratutako langabeak

Δ Hilabete artekoa

Uztaila	21.896 pertsona
	% 0,9 ▲
Emakumeak	% 1,0 ▲
Gizonak	% 0,6 ▲

Benchmarkina

Δ Hilabete artekoa

Bilbo	% 0,9 ▲
G-5	% 1,0 ▲
G-3	% 0,6 ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Populazio afiliatua

Δ Hilabete artekoa

Uztaila	180.989 pertsona
	% 0,2 ▼
Erregimen Orokorra	% 0,3 ▼
Autonomoak	% 0,2 ▼
Etxeko SB	% 0,3 ▼
Beste batzuk	% 3,4 ▲

Sektoreen arabera, Zerbitzuetan bakarrik galdu da afiliazioa, 644 afiliazio gutxiagorekin (-% 0,4); Industriaren sektorean 116 enplegu sortu dira (% 1,4), Eraikuntzarenean 69 (% 0,8) eta Lehen sektorean 7 (% 2,5).

Zerbitzuetan, ehunekoei erreparaturaz, beherakadak daude Aisialdian eta kulturaren (-% 5,5 eta 204 afiliatu gutxiago), Administrazio-jardueretan (-% 3,8 eta 691 gutxiago) eta Hezkuntzan (-% 2,5 eta 556 gutxiago). Bestalde, Jarduera profesionaletan, zientifikoetan te teknikoetan ere behera egin du enpleguak (-% 0,6 eta 81 gutxiago). Gizarte-zerbitzuek eta Ostatuak % 3,5eko igoerarekin itxi dute hilabetea, bi kasuetan (333 eta 61 enplegu gehiago, kasu bakoitzean), Merkataritzak % 0,3 egin du gora (56 gehiago) eta Ostalaritzak % 0,2 egin du gora (21 gehiago) hilabete batetik bestera.

Urte arteko datua. Uztailean, afiliazioak gora egin du urtetik urtera, 3.191 pertsona gehiago (% 1,8). Autonomoen araubideak bakarrik galdu du afiliazioa, zortzigarren aldiz segidan. Sektoreen arabera, Zerbitzuek 3.492 afiliatu batu dituzte (% 2,2) eta Eraikuntzak 21 (% 0,2). Industriak 270 galdu ditu (-% 3,0) eta Lehen Sektoreak 61 (-% 17,3). Zerbitzuetan urte arteko gorakada nabarmendu da ostaluetan, ostalaritzan eta aisialdian (% 22,3, % 9,3 eta % 4,8 gehiago, hurrenez hurren).

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak % 0,4ko gorakada islatu du aurreko hilaren aldean. Zaragozak izan ezik (-% 0,2) taldeko hiri guztiek gora egin dute afiliazioari dagokionez. Sevillan erregistratu da gorakadarik handiena (% 0,8).

G-3ko hiriburuetan, batera hartuta, afiliatuen kopurua igo egin da: % 0,7. Donostian % 1,7 igo da eta Gasteizen eta Iruñean % 0,2, bi kasuetan.

Kontratuak

Uztailean 12.486 kontratu sinatu ziren Bilbon, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino -% 8,6 gutxiago (1.171 kontratu gutxiago). Gizonei egindako kontratuak behera egin dute (481 gutxiago) eta emakumeen kasuan behera egin dute (690 gutxiago), 2021eko uztailearekin alderatuta.

Adin-tarteen arabera, 25 eta 44 urte bitarteko pertsonen dagokie erregistratutako kontratuen % 49,2 (6.143 kontratu); % 26,8, berriz, 45 urtetik gorakoei (3.350), eta gainerako % 24,0 25 urtetik beherakoei (2.993).

Sektoreka, Zerbitzuen sektoreak 2021eko uztailean baino 1.005 kontratu gutxiago izan ditu. Industrian eta eraikuntzan behera egin dute (151 eta 17 gutxiago, hurrenez hurren).

Populazio afiliatua

Δ Hilabete artekoa

Uztaila	180.989 pertsona
	% 0,2 ▼
Lehen sektorea	% 2,5 ▲
Industria	% 1,4 ▲
Eraikuntza	% 0,8 ▲
Zerbitzuak	% 0,4 ▼

Benchmarkina

Δ Hilabete artekoa

Bilbo	% 0,2 ▼
G-5	% 0,4 ▲
G-3	% 0,7 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Erregistratutako kontratuak

Δ Urte artekoa

Uztaila	12.486 pertsona
	% 8,6 ▼
Emakumeak	% 9,2 ▼
Gizonak	% 7,8 ▼

Zerbitzuetan, nabarmentzekoa da, datu absolutuetan, Ostalaritzan (299 gehiago) eta Hezkuntzan eta Jarduera artistiko, aisialdiko eta entretenimendukoetan (132 eta 65 gehiago, hurrenez hurren) izandako kontratuen igoera. Nabarmen egin dute behera Garraioetan eta biltegiaritzeetan, Osasuneko eta gizarte-zerbitzuetako jardueretan eta Merkataritzan, 697, 362 eta 215 gutxiago, hurrenez hurren.

Kontratazio-esparru berriarekin, % 232,9 egin dute gora kontratu mugagabeek. Aldi baterako kontratuak guztien % 71,6 izan dira. Uztailean 9.774 pertsona kontratatu dira eta % 54,2 emakumeak izan dira. Kontratu-txandakatzearen indizea hau da: pertsona bakoitzeko 1,28 kontratu.

MERKATARITZA

Txikizkako merkataritza

Bizkaiko txikizkako merkataritzaren sektoreak urte arteko % 4,5eko hazkundera izan du salmentetan bigarren hiruhilekoan. Erregai-zerbitzuguneetan automobilgintzarako egindako erregaiaren salmenta kontuan izan gabe, salmentek % 4,9 egin dute gora.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, % 1,0 igo dira salmentak.

Sektoreka, urtetik urtera ibilgailuentzako erregaiaren salmentak murriztu egin dira (-% 2,9), eta gainerako produktuenak eta elikadurari dagozkionak, berriz, handitu (% 8,7 eta % 0,3, hurrenez hurren).

Bizkaiko txikizkako merkataritzaren sektorean lan egiten duten langileen kopurua, aurreko urtearekin alderatuta, % 1,4 hazi da; hortaz, bost hiruhileko daramatza segidan hazten.

Salmentek ere gora egin dute lurralde guztietan. Gipuzkoan gehien, % 5,0, eta Araban gutxien (% 1,8). EAEn, txikizkako salmentak % 4,2 igo dira urtetik urtera.

Txikizkako merkataritza Bizkaia	
Δ Urte artekoa	
II. hiruhilekoa	106.6 adierazle orokorra
	% 4,5 ▲
- Elikadura	% 0,3 ▲
- Gainerako produktuak	% 8,7 ▲
- Ibilgailuentzako erregaia	% 2,9 ▼
Gasolina-zerbitzugunerik gabe	% 4,9 ▲
Landunak	% 1,4 ▲

TURISMOA

Bilboko hotel-establezimenduetan 224.158 ostatu-gau erregistratu dira hiriarentzako uztaillik onenean, 2019ko datua eta 200.000 ostatu-gauen muga gaindituz; orain arte abuztuan bakarrik gertatu da hori.

Aurreko urteko hil berean baino 71.978 ostatu-gau gehiago izan dira, urte arteko % 47,3ko hazkundearekin.

la hazkunde osoa atzerriko turisten ostatu-gauek eragin dute; urte arteko % 139,2 hazi dira eta uztailean Bilboko hotel-establezimenduetako ostatu-gau guztien % 54 izan dira.

Hazkunde txiki batekin eutsi zaio Estatuko turismoari (+% 1,6), eta batez besteko egonaldia, 1,93koa izan da, iazkoaren berdina.

Bidaiarien sarrerak ere nabarmen egin du gora (% 47,5 eta 37.410 sarrera gehiago). Hiriko hoteletan ostatu hartutako bidaiariei dagokienez, Madrilgo Erkidegokoak izan dira ugarienak (% 24,0), gero Kataluniakoak (% 12,7), Andaluziakoak (% 11,6) eta EAekoak (% 11,0). Atzerriko turismoari dagokionez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugarienak: Frantzia (% 15,5), AEB(% 10,2), Erresuma Batua (% 9,1), Alemania (% 8,0) eta Herbehereak (% 7,2).

Benchmarkina. Euskal hiriburuen multzoan (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da, urtetik urtera % 35,8 hazi da eta. Gora egin dute Gasteizen (% 32,5), Donostian (% 35,8) eta Iruñean (% 40,1).

Bestalde, estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauek % 83,9ko gorakada izan dute. Multzo horretako hiriburu guztietan areagotu da ostatu-gauen kopurua. Bartzelonan egon da gorakadarik altuena (% 118,1).

Ostatu-gauak

Δ Urte artekoa

Uztaila 224.158 ostatu-gau
% 47,3 ▲

Bidaiarien sarrera

Δ Urte artekoa

Uztaila 116.237 sarrera
% 47,5 ▲

Benchmarkina

Δ Urte artekoa

Bilbo % 47,3 ▲
G-5 % 83,9 ▲
G-3 % 35,8 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruña

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Aireko garraioa

Bilboko aireportuak 580.572 bidaiari erregistratu ditu uztailean; beraz, urte arteko % 63,7ko igoera izan du (aurreko urteko hilabete berean baino 225.862 bidaiari gehiago). 2019ko uztailearekin alderatuta, bidaiarien trafikoaren % 96,3 berreskuratu da.

Igo egin dira nazioko hegaldietan izandako bidaiariak (77.103 gehiago urte artean, % 26,8), eta indartsuago nazioartekoetan (% 223 hazi dira eta 148.429 bidaari gehiago egon dira).

Hilean zehar egindako hegaldiak, iritsieren eta irteeren artean, 4.672 izan dira (% 37), baina garraiatutako merkantziak jaitsi egin dira (-% 26,5).

Datu metatua (urtarriletik uztaileira) 2.712.766 bidaiarira iritsi da, eta 2021eko datua nabarmen gainditu du (% 203,7), baina oraindik ez du lortu iristea (-% 19,7) 2019ko aldi berean izandako 3.378.297 bidaiarietara.

Benchmarkina. Espainiako bost hiri nagusien barruan (G-5), 5 milioi bidaiari gehiago zenbatu dira 2021eko uztailearekin alderatuta. Taldeko aireportu guztietan bidaiarien kopuruak gorakada handia izan du.

G-3 multzoan, bidaiarien trafikoari begira, 34.000 bidaiari gehiago egon dira, % 67,3 urtetik urtera. Hiru aireportuetan gorakada garrantzitsuak egon dira bidaiarien kopuruan.

Itsas-garraioa

Bilboko Portuak 3,2 milioi tonako trafikoa izan du uztailean, hau da, % 30,3 gehiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolioa eta gasa, funtsean) portuan uztailean kudeatutako salgaien % 63,3 izan da, eta urte arteko % 62,4ko igoera izan du. Solteko gaien trafikoak -% 20,9 egin zuen behera (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), baina salgai orokorrek gora egin dute (% 7,3).

Bidaiarien itsas garraioan, 25.537 bidaiari zenbatu dira hilabetearen amaieran. Uztailean 5 itsas bidaia eta 9.866 itsas bidaiari erregistratu dira.

Metatutako datuari dagokionez, urtarriletik uztaileira, 19,2 milioi tona lortu dira portuko trafikoan, aurreko urteko epe berean baino % 8,0 gehiago.

Aireko garraioa

Δ Urte artekoa

Uztaila 580.572 bidaiari
% 63,7 ▲

Benchmarkina

Δ Urte artekoa

Bilbo % 63,7 ▲
G-5 % 89,2 ▲
G-3 % 67,3 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruña

Itsas garraioa Uztaila

Δ Urte artekoa

Portuko trafikoa 3,2 milioi tona
% 30,3 ▲
Bidaiariak 25.537 bidaiari
% 325,5 ▲

Hiri- eta metropoli-garraioa

Urteko metatuan (urtarriletik ekainera) Bilboko hiri- eta metropoli-garraioetako erabiltzaileen kopurua (Metro Bilbao, Bilbobus eta EuskoTran), guztira, 51,8 milioi bidaiarira heldu zen; beraz, % 22,2 igo da aurreko urtearekin alderatuta. Datua ikusita, 2019ko aldi berean erregistratutako bidaiarien trafikoaren % 85 berreskuratu dela esan daiteke.

Metro Bilbaok bidaiari guztien hiru laurden jaso ditu (39,6 milioi), hau da, urte arteko % 24,6ko igoera izan du.

Bilbobusek bidaiarien bosten bat baino pixka bat gehiago ditu (10,9 milioi) eta % 13,1eko igoera erregistratu du.

EuskoTranek bidaiari kopurua igo du urteko lehen hiruhilekoan (% 35,8 2021eko aldi berarekin alderatuta), eta guztira 1,3 milioi bidaiari garraiatu dira.

Hiri- eta metropoli-garraioa

Δ Urte artekoa

I. seiuhilekoa

51,8 milioi bidaiari

% 22,2 ▲

ADIERAZLEEN TAULA


	Azken data	Urtetik urterako aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
Lan-merkatua			
Erregistratutako langabeak (kop.)	21.896	0,9*	2022ko uzt.
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	180.989	-0,2*	2022ko uzt.
Erregistratutako kontratuak (kop.) **	12.486	-8,6	2022ko uzt.
Biztanle aktiboak (milakotan)	171,8	-1,1*	2022ko II. hiruhilekoa
Biztanleria landuna (milakotan)**	152,3	-3,4*	2022ko II. hiruhilekoa
Langabeak (milakotan)	19,5	21,1*	2022ko II. hiruhilekoa
BAIko langabezia-tasa (%)	11,36	2,07* pp	2022ko II. hiruhilekoa
Merkataritza			
Kontsumoko prezioen indizea (KPI)***	109,9	10,8	2022ko uzt.
Afiliatutako pertsonak**	19.475	0,3*	2022ko uzt.
Txikizkako merkataritzako salmentak (indizea)***	106,6	4,5	2022ko II. hiruhilekoa
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	111,8	-0,4	2022ko ekaina
Turismoa			
Bidaia-erien sarrera	116.237	47,5	2022ko uzt.
Ostatu-gauak	224.158	47,3	2022ko uzt.
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaia-eri)	1,93	0,0	2022ko uzt.
Hoteletako okupazio-maila (%)	72,2	18,5 pp	2022ko uzt.
Diru-sarrerak libre dagoen logelako ,(€)	86,0	95,0	2022ko uzt.
Ekonomia eta enpresa			
Bizkaiko BPG (kateatutako bolumenaren indizea)	110,0	5,7	2022ko I. hiruhilekoa
Industria ekoizpena (indizea)***	122,6	11,4	2022ko ekaina
Merkataritza-sozietate berriak	414	11,9	2022ko I. eta II. hiruhilekoak
Zerbitzuetako salmentak (indizea)***	103,2	14,3	2022ko I. hiruhilekoa
Garraioa			
Bidaia-eriak airez garraiatzea	580.572	63,7	2022ko uzt.
Hegaldiak	4.672	37,0	2022ko uzt.
Salgaien itsas garraioa (milioi-tonatan)	3,2	30,3	2022ko uzt.

* Aldakuntza-tasa aurreko epearen aldean ** Bilboko enpresetan. *** Bizkaia-ri dagokiona.


Iturriak: Geuk egina, Eustaten, EInren, Inklusio, Gizarte Segurantzeta eta Migrazio Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, EEZPren, Merkataritza Erregistroaren, AENAREN, Estatuko Portuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren datuetan oinarrituta.

GRAFIKOAK


Erregistratutako langabezia-tasa




Populazio afiliatua




Aireportuko bidaiariak



Txikizkako merkataritza



Hotel gauak



Portuko trafikoa

